



Donostia eta bere bitxikeriak

Oinatz taldeko lagunak eta 20 bat herritarrek harresi barruko Donostia-ri buruzko historia eza-gutu zituzten urtarillaren 22an egin zuten txangoa. Giro ederrean, gidari berezi eta ongi prestatuen bitartez, Motako Gaztelu, Santa Maria basilika edo San Bizente elizari buruzko hainbat kontu eta gertaera entzun zituzten. /5. orrialdea



Villa Mirentxu inguruko parkeak halako itxura hartu zuen atzo eguerdian.

Elurra teilatuan...

Iragarritako tenperatura hotz eta elurra iritsi ziren atzo Lasarte-Oriara. Goizetik hasi zen mara-mara elurra botatzen eta herriko kaleetan eguerdirako kolore zuria zen nagusi.

Iragarpenen arabera hotza-

rekin jarraituko dugu asteburu osoan zehar beraz udalak kotxea beharrezkoa ez bada ez mugitzeko deia egin du arazoak ekiditeko. Bere alde-tik, espaloi eta errepedearen garbitasuna bereziki zainduko du egun hauetan udalak erorke-

tak besteak beste ahal den neurrian behintzat saihesteko.

Inguruko mendiek hartu zuten lehenik zuri kolorea eta pixkanaka herriko kale bazter eta teilatuetan ere pilatzen joan zen elurra. Herritar asko ibili zen argazkiak ateratzen

baina batez ere haurrek hartu zuten gogotsu elurraren bisita. Bolak jaurtitzen pasa baitzuzten orduak. Paisaia zuriek utzitako irudi ederrez gozatzeko aukera paregabea izango dugu, beraz, denboraleak irauin bitartean. •

Azpiegitura handiak aztertzen

Akelarre Gazte Kolektiboak antolatuta, gure eremuan egingo diren azpiegitura lan handiei buruz, asteazkenean burutu zen hitzaldian, AHT gelditu plataformako Mikel Alvarez eta Lasarte-Oria Bizirik taldeko Xabi Herrera besteak beste AHT, makro kartzela edo errauskailuak sortu ditzaketan kalteetaz jardun ziren. Honetaz gain, bihar larunbata 17:30ean Donostian Boulevardetik abiatuta "Gipuzkoa desberdin baten alde azpiegitura-lan handiak gelditu!" lempaean egingo den manifestazioa joateko deia luzatu zuten. •



Akelarre Gazte kolektiboaren deiarantzunez, herritar talde bat bildu zen Villa Mirentxuko hitzaldi aretoan.

EUSKARA /3

Gidabaimena euskaraz ateratzeagatik saria

KULTURA /4

Itsaspeko Nazioarteko zinema zikloa Lasarte-Orian

KIROLA /6

Buruntzaldea IKT taldeko gaztetxoek aukerak dituzte Kutxa Sarian



Matrikulaldia: 2012ko otsaila
Plazo de matrícula: febrero 2012
Bulego orduak: 08:30 - 19:15

- 10 ordu: astelehenetik ostegunera
- Txandaka ibiltzeko aukera (maila guztietan goiz zein arratsalde)

Lasarte-Oriako Udal Euskaltegia
Bekokale bidea 1
Tel.: 943 36 16 21
20160 Lasarte-Oria
www.lasarte-oria.org/eu/html/25/1147.shtml

- Hasierako mailan ez dago apuntatzerik (irailean baino ez dugu onartzen)
- Autoikaskuntzan plaza guztiak beteta.



Euskara ikasteko. Ordutegi moztuak: goizez, ornatuak eta goizez. Bako sistema eta diru laguntza dugu.

Cursos de euskera. Horario de mañana, tarde y noche. Disponemos de sistema de becas y ayudas para el pago de la matrícula.

25 urte Lasarte-Oria eskolaz jarduera arbasoan lan egiten duen udalaren parte da.



Neure kabuz



Garai berriak

Garai berriak omen dira Euskal Herriarentzat. Konponbidea bidean omen zegoen. ETaren su-etenak barealdia omen zekarren berarekin...

Garai berriak direnotan argazki zaharrak horitzen ari dira herriko tabernetako paretetan. Gogorra izan behar du zahartzen zozaren heinean kanpoko argazkiek barrote forma hartzen dutela sentitzeak. Parot doktrinaren izenean zaharrak berri.

Autobus ugari egin zuten urtarillaren 7an Bilborako bidea baina ugari dira oraindik euren senide maitateak ikustearren astebururo-astebururo bidea egiten ari direnak. Ugari ospitalerako bidea ukatu zaien presoak; etxean mimatu eta zaindu beharko liratekeen gaixo larriak.

Barealdia zor zigutenean neure begiz ikusi nuen kantulagun bat nola zeramaten urrutira (Animo Ekaitz!). Oraindik ere ekaitza nagusi gusean.

Eszeptizismoa hiltzen hasteko modu bat dela kantatzen du Anarik. Oztopoak oztopo, beraz, baikorrak izateko garaia da. Otegi aitortu zuen irribarre egitea hortzak erakusteko modu bat dela eta Pirritx eta Porrotxen arabera irribarre bakoitzak dakar garaipena. Ekaitzen hitzak gorde ditut bukaerarako, bi enkapatxatuk kotxera zeramaten bitartean burua itzuli eta amorruz oihukatu zuen: Lortuko dugu! Malkoak utzi eta irribarreak marrazten hasteko garaia da. Lortuko dugu.

Ane Labaka

Zorion-agurrak



Mikel

Zorionak Pirata zure hirugarren urtebetetzean familia guztiaren partetik. Asko maite zaitugu.



Merche eta Imanol

Pausoka pausoka urteak betetzen. Poliki poliki gurekin ospatzen. Zorionak!



Aimar

Zorionak Pirata!!! Ondo pasa zure urtebetetzean, guraso eta zure arrebaren partetik.



Maddi

Zorionak zure 7. urtebetetzean musu pila bat aita, ama eta Junen partetik!



Malen

Hamaika muxu potolo etxekoan partetik. Ondo pasa zure eguna!



Paula

Zorionak printzesa zure 4. urtebetetzean. Muxu asko Mario eta osaben partetik.



Ane Miren

Zorionak! Orain hortz berderik gabe, sorgin txikia diruzdu. Sei muxu famili guztiaren partetik.



Nahia eta Anartz

Ongi etorri! Txintxo portatu amatxorekin Anartz. Zorionak Ttakuneko kideen partetik.



Idoia eta Mari

Ahaztuko ginela uste zenuten! Nola ahaztuko ditugu gure Agatak. Zorionak Ttakuneko langileen partetik.



Oier

Zorionak bitxito zure 2. urtebetetzean!! Muxu handi bat aita, ama eta familiaren partetik.



Erika eta Tania

Zorionak amatxo eta Erika familia osoaren partetik.



Jon

Bat, bi hiru, lau eta BOST super hyper mega milioi muxu. Amatxo eta aita txoren partetik.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- Garaje marra bat alokatzen da Hipodromo etorbideko 10. zenbakian. Prezio negoziagarria 60 euro. Interesa dutenek 943 36 24 72 zenbakira deitu.
- Etxea alokatzen dut Zumaburrun. 3 logela eta balkoia ditu. Partikularra naiz. Harremanetarako, 660 549 308.
- Garaje marra bat alokatzen da Urbarten. Harremanetarako, 943 363 524.
- Lasarten pisua eta kotxeko marra alokatzen ditut. Pisuk hiru logela eta bi komuna ditu. Guztia hego aldera dago kokatuta. Harremanetarako, 606 391 998.
- Logela bat alokatzen da, pertsona langile eta arduratsuari, Lasarteko erdialdean. Interesa daukateneke telefono honetara deitu: 637 315 213.

Salerosketak

- Daewoo Lanos kotxea salgai 650 eurotan. Tel. 672 113 451.

Lan-eskariak

- Neska arduratsua eskaintzen da orduka lan egiteko, pisuetan, garbiketa lanetarako, pertsona heldu eta haurren zaintzarako eta etxeko lanetarako. Telefono: 648243984
- Txakurrak paseatzeko pertsona arduratsua eskaintzen da. Harremanetarako, 620 190 207.

Oharrak jartzeko:

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com
www.txintxarri.info • Geltoki kalea 4 • Tel.: 943 366858

Guardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 3

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Larunbata, 4

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Igandea, 5

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Astehelena, 6

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Asteartea, 7

Urbistondo, San Frantzisko 1
Tel.: 943 366567

Asteazkena, 8

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Osteguna, 9

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

GAUEKOA: 22:00-09:00, egunero

Chuela, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.800 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Sarien zozketan udal ordezkari eta autoeskoletako ordezkariak egon ziren Usurbilen burutu zen agerraldian.

Gidabaimena euskaraz ateratzeak saria dauka

Eli Martikorena eta Andoni Urdangarin dira herrian sarituak

Lasarte-Oriako Mugica eta Izarra autoeskolak dira gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz ateratzeko aukera eskaintzen dutenak. Bi autoeskola hauetan 2011. urtean euskaraz azterketa gainditu dutenen artean, sarituak Elisabeth Martikorena eta Andoni Urdangarin izan dira. Bi lagunei autoeskolako matrikula eta azterketa teorikoarengatik ordaindutakoa bueltatuko zaie.

2010. urtean jarri zen abian gidabaimena euskaraz ateratzeko egitasmoa Buruntzaldeko udalek bultzatuta. Hauek 2009-2010 ikasturtean diru laguntzak bideratu zituzten autoeskoletan beharrezkoa zuten materiala euskaraz egi-

teko eta horrela ekimenarekin bat egin nahi zuten autoeskoletan beharrezko materialarekin hornitu ahal izateko.

60 ikasle

2010. urtean 34 ikaslek gainditu zuten azterketa teorikoa euskaraz eta 2011ean berriz, 60k. Naiara Sanchiz Hemaniko euskaraz zinegotziaren hitzetan "kopurua ia bikoiztu da eta etorkizunerako erronkak, praktikoa ere euskaraz egin ahal izateko aztertzaile gehiagok euskaraz jakitea da. Baita geroz eta gazte gehiagok gidabaimena euskaraz ateratzea ere."

Gainera, erakunde ezberdienen arteko elkarlana sustatzea garrantzitsua dela azpimarratu

dute udal ordezkariak, "egitasmoarekin bat egitea Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza eta Trafiko ministeritzak".

Autoeskolentzat, Jose Mguel Solozabal, Solozabal autoeskoletako buruak azaldu bezala, gidabaimena euskaraz ateratzeko aukera eskaintzea aspaldiko nahia zen eta "udalek egindako esfortzu ekonomikoa eskertzekoa da" izan ere, hori gabe ezinezkoa litzateke.

Oso pozik azaldu dira aldeak ekimenak izandako harerarekin eta aurrera egitea da hel burua. Datorren urtean ere saria banatuko da beraz, gida baimena euskaraz ateratzeko animatzen dituzte Buruntzaldeko bizilagunak.

UDALA

Elurtearen aurrean neurri eta aholkuak

Egun hauetan aurre ikusita dauden elurteak direla eta Lasarte Oriako Udalak zenbait aholku luzatu nahi dizkie herritarrei: kotxea behar beharrezkoa den kasuetan bakarrik erabiltzea, egin beharreko bidaia garraio publikoan egitea, derrigorrez ibilgailu pribatuaren bat hartu beharrenez egonez gero segurtasun distantziak mantentzea, kotxea garajea gordetzea eta espaloietan kontuz ibili erorketak ekiditeko izotza egon baitaiteke.

Bestalde Udalaren partetik neurri desberdinak hartuko dira ahal den eragozpen gutxien egon daitezkeen. Goizean goizetik errepide guztiak garbituko ditu ahal den neurrian. Zerbitzu publikoak dagokienez sarrera guztiak garbituko dira eta gatza erabiliko da. Espaloiak ere garbi mantentzen saiatuko da eta herriko aldatan arreta berezia jarriko da.

Gauzak honela, Udalak jakinarazten du herritarren zerbitzura egongo dela eta horretarako 943 37 60 55 (udala) edo 943 36 24 42 (Udaltzaingoa) telefono zenbakietara deitu ahal izango dutela herritarrek.

EUSKAL KARABANA

Errefuxiatuen aldeko janari bilteta

Sahara Herriaren Lagunak taldeko kideak, bihar otsailaren 4a, goizeko 11:00etatik arratsaldeko 19:00etara Urbil merkatalguneko sarrera nagusian izango dira Euskal Karabanarako elikagaiak biltzen.

Arroza, azukrea, lekadunak, sardinak, atunak eta konpresak bilduko ditu elkarteak Saharako errefuxiatuen kanpamentuetara bidalitzeko.

MUSIKA

Andoingo Piano jaialdian herritarrek

Lasarte-Oriako Udaleko Musikako eskolako pianoko hainbat ikasle asteburu honetan, otsailak 4 eta 5ean, Bastero kulturgunean antolatuta den 7. Andoingo Piano jaialdian parte hartuko dute.

Valeria Fadrique, Irene Carques, Irene Fernandez, Maria Otxandorena, Paloma Huguet, Jaione Martos, Amaia Salsamendi, Sara Rubio eta Adriana Carcedo dira, hain zuzen ere, lehiatuko diren gaztetxoak.

KULTURA

Otsaileko sarreraren zozketa

Lasarte-Oriako Udaleko Kultura Sailak, martxan jarri zuen sarreraren zozketekin jarraituz, otsaileko bikoiztiaren zozketa bikoizti jarriko dute orain jokoan.

Otsailaren 24a ostiralean izango den Bodologoak helduen antzerkiak eta otsailaren 25 larunbatean, Sun Magoaren magia ikuskizunaz gozatuko aukera izango dute kultura sailak kudeatzen duen www.lasarteoriasarean.eu web-guneko harpidedunek. Zozketa hilaren 22an egingo da.

Bestalde, bikoizti horietarako sarrerak internet bidez erosteko aukera dago, www.lasarteoriasarean.eu web-gunearan bidez, leihatilan baino merkeago gainera.

MONTERROSOTIK ESKUTITZA

Euskal Presoen borrokaldia

Urtarrilaren 9 eta 13 artean ekimen ugari protestaldia burutu dute euskal preso politikoek Kepa Rezabalek Monterrosoko espetxetik jakinarazi digunez. "Urteak dira jadanik borroka iraunkor bati ekin genionetik hilean hainbat alditan ekimen finkoak eginez. Oraingo protestaldiarekin honakoa aldarrikatzen dugu: Euskal Herriko eztabaida eta erabakigune guztietan parte hartzeko aukerak eskubidea; euskal preso politikoak Euskal Herriratzea; gaitz larri eta sendaezain dituzten kideak kaleratzera; zigorra beteta eta oraindik preso gaitzkatzen askatasuna, hala nola baldintzapeko epea daudenena".

Eskutitzean Kepa Rezabalek lasarte-oriatarrei eskatzen die "aldarrikapen horien alde zuten esku dagoen guztia egin dezuten era horretan amnistia bidean oinarritzeko eskubide hauen lorpenean partaide izan zaitezten".

OZTABIDE ELKARTEA

Bilera bihar goizean

Oztabide auzo elkarteak, Arrambide eta Oztaraneko bizilagunei jakinarazten die, otsailaren 4a larunbatean goizeko 11:00etan Oztaran ikastetxearen atzekaldean dagoen lekuan bilera dagoela.

ELAk langileen eskubideen aldeko manifestaldia joateko deia luzatu du

Buruntzaldeko ELA sindikatuak lehengo astearen prentsaurrekoa eskaini zuen egungo egoera politikoko-ekonomikoa aztertu eta bihar, larunbata, Bilbon izango den Manifestazio Nazionalera deituz.

ELAko arduradunek azaldu zuten, duela hiru urtetik hona agintari politikoek izan duten jarrera salatze hainbat ekintza burutu dituzte bai sindikatuak berak, baita gehiago sindikalak ere, hala nola, Aberastasuna Banatu kanpaina, hiru greba orokorretarako deia eta 10 urrats

eredu berri batetarako dekalogoak plazaratu zuten.

Honetaz gain, ELA sindikatuak, instituzioei aldaketaren beharra dagoela urte asko daramatzala esaten azpimarratu zuten.

Baina "azken urte hauetan, Erreforma ugari egin dituzte eta denak langileen kalterako. Erreformak egin dituztenek, enplegua sortzeko, ongizate estatua bultzatzeko, kontsumoa berpizteko eta abarretarako izango zela aldarrikatzen bazuten ere, gezurretan zebiltzan" eta horregatik, egoera berean

gaudela salatu zuten.

"Gobernatzen gaituztenei, herritarren egoera larria aldatzeko egin behar dituzten politikak exijitu behar dizkiegu," adierazi zuten.

Horretarako hainbat mobilizazio egin dituzte aste hauetan, hala nola elkarretaratzeak Zerbitzu publikoetako langileen defentsan.

Ekintza nagusia, bihar arratsaldean 18:00etatik aurrera, Ongizate Estatutua jopuntuan, mugari gaitzen gure eskubideen alde lemapean Bilbon egingo den manifestazioa da.

Itsaspeko zinema zikloa Lasarte-Orian

Otsailean astelehenero nazioarteko film laburrak ikusgai izango dira 19:00etatik aurrera

Urte askotan Danok Kide elkarteak Gizarte zinema zikloa antolatu du. Aurten, ordea, gaia aldatu eta itsaspeko zinema eskainiko dute. Real Sociedad taldeko itsaspeko sailaren laguntzaz, ziklo berri honetan nazioarteko filmak ikusiko dira Manuel Lekuona kultur etxean.

Nerea EIZAGIRRE

Danok Kide elkarteak Real Sociedad taldeko itsaspeko sailaren eta Lasarte-Oriako Udalaren laguntzaz Itsaspeko zinema zikloa antolatu du otsailean zehar.

Astelehenero eskainiko dira filmak, doan, arratsaldeko 19:00etan Manuel Lekuona kultur-etxearekin nagusian. Ordu beteko saioetan, nazioarteko film laburrak ikusi ahaliko dira.

Astelehenero eguerdian Manuel Lekuonan egin zen prentsaurrekoan aurkeztu zuten Danok Kide elkarteak Jose Luis Navarrok eta Endika Amilibiak, Boris Nogales kultura saileko arduradunak eta Real Sociedad taldeko itsaspeko saileko lehendakariak, Nano Cordovillak.

Herritarrei ireki

Danok Kideko Jose Luis Navarrok azaldu zuenez, "orain arte gizarte zinema zikloa antolatu dugu. Duela 41au urtetik hona Danok Kideko hezkuntza iraukorreko gaietako bat itsaspeko zinea da eta aurten gure 50. urteurrena ospatzen dugunez, interesgarria iruditu zitzaigun herritarrei ere zabaltzea".



Danok Kideko Jose Luis Navarro eta Endika Amilibia, Boris Nogales zinegotzia eta Nano Cordovilla prentsaurrekoan.

Lasarte-Oriako Udalak ere aukera ona ikusi zuen, "itsaspeko zinemak Donostian duen garrantzia eta arrakasta ikusirik, interesgarria iruditu zitzaigun Danok Kideren proposamena. Gainera, Lasarte-Oriain lehenengo aldia da gai honetako ziklo bat egiten dena" adierazi zuen Boris Nogales, kultura saileko buruak.

Gainera, Gizarte zinema zikloko ikusle kopurua ikusita, Danok Kide elkarteak arduradunak baieztatu dira, "urte hauetan herritar ugari hurbildu da gizarte zinemako saioak ikustera eta hau mantentzea espero dugu".

Nazioarteko lehiaketa

Real Sociedad taldeko itsaspeko saileko lehendakariak, Nano Cordovillak aipatu duenez, "pozik gaude zikloa Lasarte-Oriako areto nagusira ekartzearekin".

Cordovillak azaldu zuenez, Real Sociedad taldeko atal honek urtero Donostiako

Nazioarteko itsaspeko zinema lehiaketa antolatzen du eta bertan aurkezten diren filmeekin hainbat herrietan zinema zikloak antolatzen dituzte.

Haien erronka euskarazko filmak izatea dela onartu zuen. "Gure filmotekan hiru film bakarrik ditugu euskaraz eta hori aldatu nahi dugu. Horregatik, aurtengo zinema lehiaketan 5 minutuko lau filme labur izango ditugu. Eta urte batzuetan, herrietan erakusteko, euskarazko filme sorta bat izatea espero dugu".

Egitarau anitza

Honetaz gain, saioei buruz ere mintzo zen Cordovilla: "egitarau zabalda da Lasarte-Oriako zikloan ikusi ahaliko dena. Donostiako Nazioarteko itsaspeko zinema lehiaketan ikusitakoak dira eta honetan edo nazioartean sariak jaso dituztenak".

Aipatu zuenez, "nahiz eta egun telebistan hainbat kateetan dokumentalak ikusi ahal izan, ziklo honetan iraupena-

rengatik telebistan ikusi ez daitezkeenak aurkezten ditugu. Eta benetan interesgarriak direnak".

Hauetan "itsas hondoko mundu berezia eta bertan dauden gauza harrigarriak" ikusiko direla aurreratu zuen: Indonesiako espezie ugariak, Amazoniako ibaietako arraiak eta hauen berezitasunak, Yukatan penintsulako urpeko kobazuloak, zentimetro bat baino gutxiago duten espezieak, eta abar.

Eta "Danny de Velle zinegile belgikarraren hiru filme ikusiko dira zikloan. Hainbat sari irabazi ditu eta itsaspeko lehiaketa nagusian Marsellan saria eman zioten iaz," azpimarratu zuen.

Saioetan solasaldia

Saioen hasieran aurkezpen bat egingo dela jakin arazi zuen "ikusleek gaia eta filma hobeto uler dezaten" eta amaieran galderak egiteko tarte ere izango dela aurreratu zuen. •

Egitaraua

Astelehena, 6

- "Gasteropodoen mundua". Itsas-bare eta itsas-kei buruzko filme liluragarria. Danny van Belle, 20 min.
- "Ekuador, eguzki ibaiak". Amazoniako aniztasuna ikusgai. Sathosi Okabe, 52 min.

Astelehena, 13

- "Bizitzaren leihoak". Itsaspeko animalien ikuspegi aurkezten duen filma. Danny van Belle, 18 min.
- "Mundu amaierako itsasoa". Galiziako ekosistemai eta Olagarroen estalketari buruzko filma. Jose Irisarri, 50 min.

Astelehena, 20

- "Maldivas". Irla eta urazpiko paradisua ikusgai. Sebastian Hernandez eta Jose M. Herrero, 27 min.
- "20'12". Yukatan penintsulako urpeko kobazuloak azterzen. Ricardo Castillo eta Bernar Gonzalez, 22 min.
- "Pelajiar esparrua". Zetazeoei buruzko filma. Rafa Herrero, 12 min.

Astelehena, 27

- "JATAY espedizioa". Marrazo zurien bila. Manuel Lazcano, 21min.
- "Lembeth, magikoa eta liluragarria". Itsaspeko biodibertsitate handiena ikusgai. Danny van Belle, 52 min.

¡Apuntate!
Anima zaitez!!

Matrikulaldia: 2012ko otsaila
Plazo de matrícula: febrero 2012
Bulego orduak: 08:30 – 19:15

- 10 ordu: astelehenetik ostegunera
- Txandaka ibiltzeko aukera (maila guztietan goiz zein arratsalde)

Lasarte-Oriako Udal Euskaltegia
Bekokale bidea 1
Tel.: 943 36 16 21
20160 Lasarte-Oria
www.lasarte-oria.org/eu/html/25/1147.shtml

- Hasierako mailan ez dago apuntzerik (irailean baino ez dugu onartzen)
- Autoikaskuntzan plaza guztiak beteta.

Euskara ikasteko. Ondinegi magistera. Goizez, arratsaldean eta goizez. Bako sarrera eta diru laguntzak ditugu.

Cursos de euskera. Horario de mañana, tarde y noche. Disponemos de sistema de becas y ayudas para el pago de la matrícula.

25 urte Lasarte-Oria euskalaraz jantzen ariren irabazpena por el euskara

Donostia zaharra ezagutzen

Herritarrek harresiak inguratutako hiriburuaren historia eta nondik norakoak ezagutu zituzten

Hainbat gerrate jasan izan ditu Donostiak eta, batez ere, hiriburuko alde zaharrak jaso du astindurik handiena. Ereku horretako historia ezagutzeko Oinatz taldeak txangoa egin zuen urtarrilaren 22an. Giro onean, Urgull mendiko Motako gaztelua, Untzi Museoa, Santa Maria basilika eta San Bizente eliza bisitatu zituzten.

Haurrean danborrada eta Sarriegiren doinuak lagun, 23 herritar izan ziren Oinatz taldeak Donostiako historia ezagutzeko antolatutako txangoan. "Egun donostiarra izan genuen. Urgullen ginelua umeak ikusi eta musika entzuten genuen," aipatu digute.

Izan ere, zehaztu diguten bezala, "Donostia zaharreko historia ezagutzera joan ginen". Honela, Oinatzeko lagunek eta herritarrek harresi barruko Donostia eta Urgull mendiko inguruko historia eta bitxikeriak ezagutu zituzten.

Urgull mendian gida baten laguntza izan zuten, "oso neska prestatua zen, Motako gazteluan eta Urgull mendian dauden aztarnak azaldu zizkigun: ingelesen hilerria, Karlis-tada eta Napoleon garaiko gerrate garaian gertatutakoa, urteetan izan duen aldaketa, Jesusen Bihotza noiz eraiki zen, eta abar".

Frantsesekin ligatzen

Urgull mendian eta Motako gazteluan geratzen diren artilleria piezak eta honek zuen garrantzia ere ezagutu zutela aipatu digute.

Honetaz gain, ukipen-pantaila baten bidez, harresiaren nondik norakoak azaldu zizkien gidak, baita hainbat bitxikeri kontatu ere. Esate baterako, Damen pasealekua deritzon-ean, kanoiak zeuden eta polizia frantsesak egoten ziren bertan. Donostiako neskak gazteak paseatzeko aitzakiarekin, ligatzera joaten ziren bertara".

Taldeak ezin izan zuten, Historiaren etxea bisitatu, "arazoren batengatik itxia zegoen, baina garrantzitsua ikusi genuen".

Ostean, Untzi museoa bisitatzeko aukera izan zuten. Dena den aitortu digute "desengainu handia" izan zela. Gehiago espero zuten: "lehen arrantzari buruzko informazio gehiago omen zegoen, orain hau balearen arrantzara mugatu dute eta bestea Pasaia era eman dute".

"Honela, balearen arrantzarako erabiltzen ziren bi untiak ikusi, bata originala eta bestea kopia, hauen azalpen batzuk jaso eta besterik ez genuen egin" atxiki dute.

Arratsaldean gehiago

Bazkal orduan, lagun arteko giroan, oso gustura egon zirela azpimarratu dute.

Ondoren, Santa Maria basilika eta San Bizente eliza bisitatu zituzten.

Santa Maria basilikan sakristaia izan zen historia eta elizari buruzko azalpenak eman zizkiena. "Donostiako harresiaren lurteko atean zegoen Kristoa erakutsi zigun. Honetaz gain, erretaula erre-nazentista eta barrokua. Gainera, aldre txiki guztiak desberdinak direla ohartarazi zigun" aipatu dute.

Izan ere, Santa Maria lehenik eliza erromanikoa zen, 1.500ean, bere lekuan eliza gotikoa egin zuten, baina ondoan zuen bolborategiak eztanda egin zuenean suntsitu zen. Gerora, 1700ean Cara-



Donostiako ikuspegi polita izan zuten Oinatz taldeko lagunek eta herritarrek Urgull Menditik.

OINATZ TALDEA



Motako gaztelu eta harresiko nondik norakoak adi entzun zituzten. OINATZ TALDEA

caseko Errege konpainiak Koruko Amabirjina babesle bezala hartu eta eliza berregitako dirua jarri zuen.

Eta horrekin batera, harribitxia den Cavalier-Coll organo iritsi zen elizara. "Cesar Frank musikariaren doinuak bereziki jotzeko prestatua zegoen. Orduan organo barrokua zen. Baina gero kanpoko

barroko itxura mantendu eta erromantikoa egin zuten, barroko mekanismo guztiak aldatuz" azaldu digute.

Azkenik, San Bizente eliza, "alde zaharreko erakuntza zaharrena" bisitatu zuen taldeak bertako parroko Felix Garitanoren eskutik.

Bisita elizaren kanpoko aldetik hasi zuten. Arkitektura

azalpenak, gerora jarri diren ordeko zatiak, fatxadan dagoen Oteizaren Errukia edo La piedad eskultura eta dorrea gerretarako erabiltzen zela azaldu zien besteak beste.

Hesiak bitxikeri

Parrokoak bitxikeria moduan azaldu zuen Alde Zaharrean parrandan dabiltzanak direla eta orain hesiarekin itxia dagoela, baina garai batzuetan irekia egon zela kanpoko aldea. Orain barruan dago, baina, "Elizako ponte ere kanpoaldean zegoen".

Barruko aldean, aldareen edertasuna azpimarratu zuten. Gainera, Oinatzekoekin jakin dutenez, hemen ere zerbait bitxia gertatzen da, "La Dolorosa Amabirjinari jendeak arropak kentzen zizkion eta hesia jarri behar izan dute".

Oinatzeko lagunak pozik ziren, egindako txangoarekin gustura eta hurrengo irteeraren berri eman digute, martxoaren 11an, Sara eta Zugarramurdiko kobazuloak ikustera doaz. •

ADURIZ DE LASARTE S.A

Solomoa baratxuritan

Odolkia- Solomo ontzuta Etxeko txorizoa
Tripakiak- Saltxitxak Basurde burua
Txistorra Baserri pateia



BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barren kalea 3 • Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

Lasarte-Oria



**LASARTE-USURBIL
INSTITUTUA**



- D.B.H.
- BATXILERRA



lasarte-bhi@instilasarte.net • Buenos Aires aldapa, 1 - LASARTE-ORIA Tel.: 943 372 852 / 943 372 277

Zure
aukera



Kiroletako agenda

FUTBOLA

Larunbata 04

10:00etan, Texas Lasartearra-Euskalduna (I. Kadetea, kopa) Michelinen.

10:30ean, Urnieta-Ostadar (I. Infantil) Urnietan.

11:00etan, Lengokoak-Ostadar (Infantilen Ohorezko maila, kopa) Cesar Benito, Donostian.

11:30ean, Ostadar-Aforja (Infantil txikia, kopa) Michelinen.

13:30ean, Ostadar-Mutriku (Emakumezkoen Erregionala, igoera) Michelinen.

15:30ean, Texas Lasartearra-Trintxerpe (I. jubenila, kopa) Michelinen.

16:00etan, Danena-Texas Lasartearra (I. Erregionala, kopa) Elbarrena, Zizurkilan.

16:00etan, Antiguoko-Ostadar (Jubenilen Ohorezko maila) Berio, Donostian.

17:15ean, Ostadar-Lengokoak (Erregionala Gostena) Michelinen.

Igandea 05

10:00etan, Ostadar-Euskalduna (Kadeteen Ohorezko maila) Michelinen.

10:30ean, Sporting de Herrera-Ostadar (Alebinak, kopa) Herrera, Donostian.

11:30ean, Ostadar-Eas 08

(I. Erregionala, igoera) Michelinen.

12:15ean, Ilixtxa-Ostadar

(I. Kadetea, igoera) Bikiña, Legazpian.

ARETO FUTBOLA

Ostirala 03

HERRIKO TXAPELKETA

Areto-futboleko pista

19:30ean, Ilum-Tiburones Rojos

20:20ean, Dakara-Oria krist

21:10ean, Ilargi-Izkiña

Larunbata 04

17:30ean, Buruntza K.T.Aldaz H. K. -Bilbo A.F.T. (Nazional III. maila) Kiroldegian.

HERRIKO TXAPELKETA

Areto-futboleko pista

09:10ean, El Bar de Mau-Naiban

10:10ean, Ayete-Trumoa

11:10ean, Viña del Mar-Balardi

12:10ean, Buenetxea-Indaux

13:10ean, Izarra-Txindoki

18:30ean, Uxoa K.T.-ISU Leihoak (Euskal Liga) La Granja Kiroldegia, Laudion.

Igandea 05

HERRIKO TXAPELKETA

Areto-futboleko pista

10:00etan, ISU Leihoak-El Punto

PILOTA

Ostirala 03

19:00etan, Huarte-Intza (Euskal Herriko txapelketa, eskuz, binaka kadeteak) Toki Alai, Huarten.

Larunbata 04

16:00etan, Intza-Zestoa (Udaberri txapelketa, eskuz binaka, I. kadeteak) Michelingo pilotalekuan.

16:00etan, Intza-Oiarpe (Udaberri txapelketa, eskuz binaka, I. seniorra) Michelingo pilotalekuan.

ATLETISMO

Larunbata 04

10:30ean, Landaberri eta Sasoeta ikastetxeko gaztetxoek eskolarteko alebin eta infantilen mailako pistako azken jardunaldia dute, Antonio Elorza belodromoan, Donostian.

16:45ean, herriko eta LOKEko atletak senior mailako Gipuzkoako txapelketa parte hartuko dute, Antonio Elorza belodromoan, Donostian.

Igandea 05

10:30ean, herriko eta LOKEko atletak senior mailako Gipuzkoako txapelketa parte hartuko dute, Antonio Elorza belodromoan, Donostian.

11:00etatik aurrera, herriko atleta talde batek X. antzar krosa- Euskadiko kros motzeko txapelketa parte hartuko du, Lazkaon.

SANBO

Larunbata 04

09:00etan, LOKEko gazteek Euskadiko Sanbo txapelketa dute, Avechuko kiroldegian, Gasteizen.

IGERIKETA

Igandea 05

10:30ean, Buruntzaldea IKT-ko gazteek Kutxa Sariko finala dute, Irunen.

ERRUGBYA

Igandea 05

09:00etan, Beltzak Ostadar Jalai taldeko alebin, benjamin eta eskolarteko infantilek entrenamendua dute, Michelinen.

10:30ean, Beltzak Ostadar Jalai-Antletico San Sebastian (Infantil federatuak) Zarautzen.

BOLA-JOKOA

Igandea 05

10:00etan, Ostadar SKT-ko kideek bikotekako txapelketako bigarren jardunaldian parte hartuko dute, Ategorrietan.

ESKOLA KIROLA

Larunbata 04

10:00etan 11:15era, Eskola Kiroleko LH4ko ikasleentzat igeriketa topaketa izango, Kiroldegiko igerilekuan.

11:15etatik 12:30era, Eskola Kirolean LH3ko ikasleentzat igeriketa topaketa izango, Kiroldegiko igerilekuan.



Kutxa Sariko kanporaketan parte hartu zuten Buruntzaldea IKTko gazteek lan ona egin zuten.

BURUNTZALDEA IKT

Igerilari gazteek aukerak dituzte Kutxa Sarian

Igandean Buruntzaldeako hiru igerilari finaletan izango dira

Buruntzaldea IKT taldeak ez du atsedunik. Lehengo asteburuan taldeko infantil eta alebinek Kutxa Sariko kanporaketan parte hartu zuten Legazpian.

Lan ona egin zuten eta bederatzigarri igandean finaletan izango dira. Horieta hiru Nahia Jie Villamediana, Ainara Garcia eta Mikel Soto final nagusietan dominak eskuratzeko aukerak izango dituzte.

Alebin maila

Hiru proba izan zituzten taldeko gazteenak, 50 metro bizkar estiloan, 50 metro bular estiloan eta 50 metro libre estiloan.

Hauetan azpimarragarriak dira bizkar proban Nahie Jie Villamedianaren lehengo postua; bular proban, Ainara Garcia lehengo postua eta Leire Carceroren hirugarrena; eta, azkenik, 50 metro libre proban Maialen Casado eta Janire Berasartek lortutako bigarren eta hirugarren postuak.

Hauetaz gain, Borja Apeztegia entrenatzaileak azaldu digunez, beste bederatzigarri igerilari ere parte hartu zuten eta gehienek haien markak hobetuz gaituzten.

Infantilak eta erreleboak

Infantilak, berriz, 50 metro tximeleta, 50 metro bular eta 50 metro libre probatan lehia-

tu ziren. Hauetan Mikel Sotok laugarren postua lortu zuen bular proban; Naiara Lizasok, aldiz, hirugarren postua eta marka pertsonala 50 metro libre proban.

Bestalde, 4x50 metro libreko errelebo talde mistoek ere parte hartu zuten kanporaketan, Buruntzaldeako alebin mailako bi taldek eta infantiletako talde batek. Hauetan azkarrena Nahia Jie Villamediana, Jon Soto, Beñat Alkorta eta Janire Berasartek osatutakoa izan zen, hirugarren postua lortuz.

Gauzak honela, aipatutako igerilari guztiak igandean Irunen izango dira Kutxa sariko finaletan. •

Endika Gartzia bigarren Idiazabalgo krosean

Endika Gartzia herritarrik bigarren postua eskuratu zuen Idiazabalgo herri krosean.

640 korrikalarik hotzari aurre egin zioten. Hasieratik Endika Gartzia eta Toñin Blanco gasteiztarra jarri ziren lasterketa buru. Eta azken metroetara arte elkarrekin egin zuten lasterka.

Helmugarako metro gutxi falta zirela, Blancok ihes egin zion Endikari eta herritarra bigarren iritsi zen, 33:57 denborarekin.

Baina Endikaz gain, beste herritar batzuk ere parte hartu zuten proba honetan: Ramon Altuna, 39:11; Imanol Arteaga, 39:13; Jose Ignacio Elvira, 40:47; Juan Mari Marcos, 41:31; David Sanz, 41:48; Javier Olazagoitia, 41:54;



Idiazabalgo proban parte hartu zuten lasarteoriarretako batzuk. JOSEBA IPARRAGIRRE

Francisco Javier Perez, 42:23; Julien Ollokiegi, 42:55; Jose Ramon Mendizabal, 47:54; Peio Fadrique, 47:54; Mikel Ormazabal, 47:54; Aitor Ezcurdia, 48:17; Eduardo Rivas, 48:19; Zigor Gallardo, 50:49; Ignacio Zapirain, 53:18 eta Aitor Sorozabal, 53:42.

Marka gutxienekoa

Bestalde, LOKEko Gaizka Ormazabalek larunbatean Partehartze libreko probetan etorkizuneko atleta mailako 200 metroko Espainiako gutxieneko marka egin zuen eta otsailaren 11 eta 12an, Antequeran izango da. •

Egunero

Erakusketa

RUDY artistaren MARGOEN ERAKUSKETA.
JALGI KAFE-ANTZOKIAN,
otsaila erdialdera arte.

Igandea, 5

Zinea

HAUR ZINEA atalean, "HAPPY FEET 2" filma ikusgai izango da. MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, 17:00etan. GAZTELANIAZ. Sarrera 3, 40 euro.



Santa Agedari koplakantua

Santa Ageda bezperan, herriko hainbat talde aterako dira eskean. 18:00etan, Zabaleta auzoko lagunak aterako dira auzo eta baserriak girotz, 18:30ean, berriz, Ttakun kultur elkartek, Xumela, Bertso eskolako kideak Musika eskolako bi trikitilariekin batera herriko kaleetan zehar ibiliko dira. Erketz EDTko lagunak ahotsak ere herrian eta baserrietan entzun ahalko dira.

LARUNBATA 4
18:00ETATIK AURRERA
LASARTE-ORIAIKO KALE ETA BASERRIETAN

Osteguna, 9

Zinea

OKENDO ZINEMA TALDEAREN ESKUTIK, OSTEGUN ZINEA atalean "HAPPY THANK YOUR MORE PLEASE". MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, 21:30ean, GAZTELANIAZ. Sarrera, 4,40 euro.

Igandea, 12

Zinea

HAURREN ZINEA atalaren barruan, "VICKY BIKINGOA ETA THORREN MAILUA" filma ikusgai. MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, 17:00etan, EUSKARAZ. Sarrera 3,40 euro.



Zinea

OKENDO ZINEMA TALDEAREN ESKUTIK, HELDUENTZAKO ZINEA atalean "HAPPY THANK YOUR MORE PLEASE". MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, 19:30ean, GAZTELANIAZ. Sarrera, 5,50 euro.

Oharrak

Kotzeko giltzak galdu

Lasarte-Oriako herritar batek kotzeko giltzak galdu zituen urtarrilaren 31a asteartean, Urbarren.

Norbaitek aurkitu baldin baditu, 616 333 017 telefono zenbakira, Pili, deitu dezala.

Marrakiz eta pintura klaseak

Lasarte-Oria Bizilagun Elkar-teak jakinarazten du, marrakiz eta pintura klaseetan izena emateko aukera dagoela.

Klaseak Kultur Etxean dira asteazken eta ostiraletan 18:30etik 20:30era eta larunbetan 09:30etik 11:30era.

EPAn matrikula egiteko azken eguna

Helduen Hezkuntza iraunkorreko zentroak, EPAk, gaur ikastaroetan izena emateko epea irekiko du.

Zentroak hizkuntzak, informatika, artea eta DBH titulua ateratzeko ikasketak eskaintzen ditu.

Matrikula HHI-EPAko egoitzan, Osasun zentro berriko eraikineko 3. solairuan edo 943 366 608 zenbakian egin daiteke.

1961ean jaiotako afaria Txartelen

1961 urtean jaiotako herritarrek Txartel Txoko jatetxean afaria antolatuta dute otsailak 11ean, 21:00etan. Afariaren prezioa 30 eurokoa da eta ordainketa aurretik egin behar da honako kontu korronte zenbakian, 2101 0092 15 0012963252 (Marta Garcia Ortiz). Izena emateko azken eguna otsailaren 6a izango da.

Euskal Inauterietako konpartsa

Inauterietarako hilabete baino gutxiago geratzen da eta Euskal Inauterietako Konpartsak entseguak hasi ditu inauterietako iganderako, otsailaren 19rako gutzia prest egon dadin.

Antolatzailerik parte hartu nahi duen herritar orori dei egiten diote. Entseguak astearte eta ostegunetan dira arratsaldeko 20:00etatik 21:00etara Landaberri BHIren egoitzan.

Udalari proposamenak luzatzeko aukera

Lasarte-Oriako Udalak herritarren parte hartzea sustatzeko iradokizun orrialdea duela gogora arazten du. Orrialdea Udaleko harreraren dago eskuragarri, baita baita www.lasarte-oria.org orrialdean ere. Idatzi ostean, Udaleko harreraren dagoen postontzi berdean utzi edo iradokizunak@lasarte-oria.org helbide elektronikora bidali behar da orrialdea.

Astelehena, 6

Zinea

Danok Kide elkarteak, Lasarte-Oriako Udalaren laguntzarekin, antolatutako URPEKO ZINE ZIKLOAREN lehenengo saioa. MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, 19:00etan. Doan.

Liburutegiko ordutegia



Astelehenetik ostiralera 10:00 - 13:00
eta arratsaldetan 16:00 - 21:00
Larunbata 9:30 - 13:00

Manuel Lekuona kulturetxea
Geltoki kalea 18 •Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5-ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 10:45era

Esquitza

Bittor, bertan begiratzeko ispilu paregabea

Umil eta isilik joan zara gure artetik, handikeriari muzin eginez, beti bizi izan zaren bezala. Eta honek are eta gehiago nabarmendu ditu zure baloreak.

Zure elkartasuna eta laguntza behar izan dugunok, beti izan zaitugu hor. Zure erantzuna, beti berdina: "zerbait egin badezaket kontatu nirekin". Handia zinen Bittor!

Mitxelingo errepresaliatu, irakasle eta kooperatibista izan zinen. Zure analisisen eta hausnarketen jomuga, gizarte justuago bat zen. Beti esaten zenuen etorkizuna gaizteena dela, eta hauek pentsaraztera bultzatzea, ez hain gaizteena zela.

Bittor, HB-ko zinegotzi izateko pausoa eman zenuen eta zintzotasuna eta

lana oinarri zuen bidea jorratu zenuen. Hernaniko plenoetara joateaz gain, Lasarte-Oriako udalerrian alde borroka egiteko erronka hartu zenuen eta udaletxeko obra batzordean arduraduna izan zinen. Lasarte-Oriako gaiak eta arazoak herrian erabaki zitezkeen lanean ekin zenuen gogor; beti aurreko ilaran, herriak behar zituen azpiegitura eta zerbitzuak izan zitiz: Hilerria, ambulatorioa, kiroldegia, udaletxea, kultur-etxea, institutua, ongizate soziala, plan urbanistikoa, etb.

Bittor, mendiaren maitale sutsua zinen. Tereren ondoren motxilarekin gogoratzen zaitugu. Naturari oso atxikirik beti. Porlanarekin egiten ari ziren hondamendiari gogor erantzun zenion eta

zure jarrerak eta lanak eragin handia izan zuten Lasarte-Oriako lehengo arau subsidiarioetan.

Bittor, udalerrian aldeko erreferendumean egindako lana ere izugarria izan zen, abstentzio aktiboaren %72-a lortuz. Argi utzi zenien deskalabru horien arduradunei, gure herriarekin, Lasarte-Oriarekin, zor historikoa zegoela aspalditik.

Bittor, bertan begiratzeko ispilu paregabea zara. Zu eta zu bezalako pertsonak, egoera berri bat ekarri duzue Euskal Herrira.

Agur eta ohore

Lasarte-Oriako ezker abertzalea

Logo Lehiaketa

Kukuka antzerki eta dantza eskolako logoa aukeratzeko lehiaketa martxan jarri du elkarte honek.

Parte hartu nahi duen pertsona orori irekia dago, baina gehienez bi diseinu aurkeztu ahal izango ditu.

Partehartzaileek logotipoa koloretan eta txuri beltzean paperean, nahiz CD batean gordeta aurkeztu behar ditu. DIN A-4ko kartazal batean aurkeztuko dira, Kukuka antzerki eta dantza eskola etiketa jarrita.

Barnean, sobre itxi batean partehartzailearen datu pertsonalak jarri beharko dira. Lanak Lasarte Oriako kultur-etxean Kukukaren izenean jarrita dagoen buzoian utzi beharko dira, 2012ko otsailaren 15a baino lehen.

Badatoz inauteri olinpikoak!

■ Olinpiadak izango da aurten Lasarte-Orian mozorrotzeko gaia ■ Otsailaren 18an egun osoko egitaraua burutuko da ■ Antortxa olinpikoak herriko hamabi tabernatan egingo du geldialdia

Olinpiar Jokoak Lasarte-Orian jokatu dira inauteri hauek. Dagoeneko finkatuta daude, otsailaren 18an, inauteriak direla eta, herrian burutuko diren ekintza nagusiak. Antortxa olinpikoak ibilbidea egingo du goizean txaranga eta lurralde ezberdinetatik iritsitako kirolariekin festa egunari hasiera emateko.

Maidar AZURMENDI

Inauteriak badatoz eta herritarrek dagoeneko euren mozorroak prestatzen ari dira. Olinpiadak da aurtengo mozorro gaia eta nola ez, kirol ekimen handi honetarako asko izango dira antolatutako ekintzak.

Londresko Joko Olinpikoak txiki geratuko dira Lasarte-Oriatarrek inauterietako larunbaterako prestatutako festa handiarekin. Lehen ekimena 12:00etan antortxa olinpikoaren iritsiera izango da.

Antortxak herrian zehar ibilbidea egingo du txaranga eta kirolari anitzez lagunduta. Horrela su olinpikoak herriko hamabi tabernetan egingo du geldialdia. Horrela tabernetan egun osoan piztuta egongo diren antortxak pizten joango dira.

Tapeo olinpikoa

Ibilbidea egin ostean, Okendora egingo du buelta antortxak eta bertan kokatuko da festaren ikur eta hasiera izan dadin.

Ondoren, plazan, ikuskitzuna eskainiko dituzte herriko bi koadrilek, ATC saskibaloitako jokalariek osatzen duten "Zumeta-



Ttakuneko balkoia inauteri koloreekin apaindu zen. Antolatzaileek deialdia luzatu dute inauterietan herriko balkoia apaintzeko.

rrak"eko kideek eta Zakili beltz-ekoek. Hurrek bestalde, herri kiroletan aritzeko aukera ere izango dute Ttakuneko begiraleen laguntzarekin.

Eguerdi tarte horretan, kirol modalitate berri bati ekingo zaio herrian, izan ere tapeo olinpikoa burutuko da.

Kalejira herrian zehar

14:30ean bazkaria egingo da Okendon kokatuko den karpantean eta jendeak etxetik eramane beharko du bere bazkaria.

Arratsaldean berriz, kalejira egingo da herriko kaleetan barrena.

Konpartsek 16:00etan Okendon izango dute hitzordua elkartu eta 16:30etan kalejira koloretsuari hasiera

emateko. Ibilbidea honakoa izango da: Zumaburura Ola kaletik Jubilatuetan lehen geldialdia eginez, ondoren Udalletxean, Pablo Mutiozabal eta Iñigo de Loiolatik Geltoki kalera abiatuko da kalejira Okendo plazan bukatzeko.

Kalejiran bederatzi konpartsek hartuko dute parte, Zabaleta, Amalur, Ttakun, Jalgun, Zumaburu ikastetxeko ikasle eta gurasoak, Centro Cívico, Erketz, Elkar eta Zakili Beltz.

Okendon kalejirari amaiera borobila emateko txokoladeta egingo da.

Aipatu ere Joko Olinpiko hauek maskota edukiko dutela, Otsa Lontxo izango da festa handi honetan beste protagonistetako bat.

Itxiera ekitaldi handia

Festa ez da hemen amaituko, 20:00etatik 22:00etara Amalurrekoek plazan joko dute eta ondoren, lurralde ezberdinetatik iritsitako kirolariekin Joko Olinpikoen itxiera ekitaldi ikusgarria egingo da. 23:00etatik aurrera ABIBA disko jaia dantzan jarriko ditu Okendora gerturatzen diren herritar guztiak.

Euskal inauteriak

Bestalde, euskal inauterien konpartsa ere kalera aterako da larunbatean. Hauek gainera 30. urteurrena ospatzen dute aurten.

Ohi bezala konpartsa 12:00etan aterako da Kotxerasetik eta herrian zehar egingo ditu hainbat geldidune,

lehen Patxi Larrañagan, ondoren, Gure Etxean, Munterri euskaltegia eta azkenik, Okendo plazan amaituko dute kalejira.


Eguerdi konpartsakideek bazkaria egingo dute 14:30ean Goiegi jatetxean. Arratsaldean, Jubilatuen elkarrekin bilduko da konpartsa eta bertatik abiatuko da geldialdirik egin gabe Okendo plazara. Bertan amaiera emango diote festari panpina erretzearekin batera.

Parte hartzea sustatu

Inauteri egun honetan herritarrek parte hartzeri animatu nahi dituzte antolatzaileek. Mozorroa soinean kalera ateratzeko gonbitea luzatu nahi diete lasarte-oriatar guztiak. •

LASARTEARRAK BETIDANIK GUREKIN

2011



LARRAMENDI
IKASTETXEA

MATRIKULA ZABALIK
Urtarrilak 30 - otsailak 10

1etik 18 urte arte / de 1 a 18 años

www.larramendi.com